

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMU  
SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN PLAN  
ESTRATEGIKOA, 2019-2023

# LIBURU ZURIA

EUSKO JAURLARITZA, HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# AURKIBIDEA

SARRERA .....	3
1 DATUAK .....	4
1.1 DATU SOZIOLINGUISTIKOAK .....	4
1.1 IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOA.....	12
1.2 UNIBERTSITATEA .....	15
1.3 LAN MUNDUA .....	17
1.4 EREMU SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO BALIABIDEAK .....	23
2. ZER DAGO ABIAN EREMU SOZIOEKONOMIKOA ETA HIZKUNTZA ESKUTIK HARTUTA?.....	31
2.1 EUROPA .....	31
2.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA .....	31
2.3 KATALUNIA.....	36
3. HAUSNARKETARAKO IDEIAK.....	38
3.1 PATXI SAEZ.....	38
3.2 JOSE MARI ZENDOIA.....	38
a) Hizkuntzaren merkatua. (35.orr) .....	40
b) Hizkuntza, sektore ekonomiko gisa (37.orr) .....	41
3.3 AMADO ALARCÓN .....	41
3.4 AMAIA BALDA.....	42



# SARRERA

“Liburu bati zuria, eskuharki, konflikto baten aurrean jarrera aldi berean arrazoitua eta oldarkoia hartuz, hainbat dokumentuz osatua denean deritza”. Hitz hauekin irekitzen da Euskaltzaindiak 1978an argitaratutako “Euskararen liburu zuria” azterketa lan sakonaren hitzaurrea. Esku artean duzun dokumentu honek ez du euskararen historiarako mugarri den Liburu Zuri horren aspirazio, ez funtziorik. Baina, alor sozioekonomikoko euskararen plan estrategikoa lantzen hasteko giltzarri diren hainbat dokumenturen aipamen, erreferentzia eta laburpena izan nahi du. Bertan topatuko duzuna hautu baten ondorioa da. Dokumentu gehiago edo desberdinak sar genitzakeen, baina prozesua abiatzeko gutxieneko dokumentazio bat erdigunean jarri, eta parte hartuko dutenekin partekatzeko ahaleginaren ondorioa da hau. Horrela hartu beraz, “Liburu zuri” deitzera ausartu garen hau, gaian murgiltzen hasteko oinarritzko dokumentu batzuetatik jasotako oinarritzko ideien bilduma.

Eta zeregin horretarako, 3 atal aurkituko dituzue:

1. **Datuak**: dagokigun lan honetarako baliagarriak izango zaizkigun datuen bilduma aurkituko duzue.
2. **Zer dago abian eremu sozioekonomikoa eta hizkuntza eskutik hartuta?** Europan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Katalunian alor sozioekonomikoan eremu urriko hizkuntzen normalizazioa helburu duten marko juridiko eta ekimen nagusien bilduma.
3. **Hausnarketarako ideiak**: 4 lanen bilduma laburra egin dugu, gaiari buruzko hausnarketa sustatzeko helburuz: Patxi Saezen “Elefantea ikusi” artikulua (2015), Jose Mari Zendoiairen “Hizkuntza gutxituak eta ekonomia: euskararen kasua” (2000), Amado Alarcónen “Economía de la Lengua” (2011); eta Amaia Baldaren “Enpresak euskararen errotari eragiten” (2017).

Ekin diezaiozun, bada, “liburu zuriri”:

# 1 DATUAK


Datuak aztertzeari ekingo diogu. Alor sozioekonomikoan eragina duten datuak lau atal nagusitan emango ditugu. Lehenik, 16 urtetik aurrerakoak datu orokorrak emango dira: hizkuntza gaitasuna, erraztasuna, erabilera eta jarrera. Bigarrenik, hezkuntzari buruzko datuak emango ditugu. Hezkuntzaren bidez prestatzen dira etorkizunean langile izango direnak, eta garrantzitsua da ezagutzea hizkuntza ereduak zertan diren. Hirugarrenik, lan munduari lotutakoak eskainiko dira. Eta laugarrenik, baliabideak.

## 1.1 DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

Euskararen ezagutzak, erabilerak eta jarrerak gora egin du etengabe azken 25 urteetan. 2016an EAEn %33,9 da euskaldun, 19,1 euskaldun hartzaile eta %47 erdalduna. Erabilerari dagokionez, nagusiki erdaraz aritzen direnak %63,3 dira. Egoera soziolinguistikoa, baina, ez da homogenea. Alde nabarmenak daude herrialdeen artean (Gipuzkoan dago euskaldun dentsitatearik eta erabilerarik handiena), baita adin tarteei dagokionez ere. Gazteen artean dago ezagutza tasarik altuena (%71,4), baina hain zuzen ere gazteen artean dago erdal elebidunen kopururik handiena (%55,7). Alegia, errazago moldatzen dira erdaraz. Jarrerari dagokionez, euskararen erabilera sustatzeko aldekotasun soziala dago (%65 alde, %9,3 aurka). Ikusi ditzagun datuak sakonago.

### a) Gaitasuna

Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2016 (%)




*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*

EAEn %33,9 da euskalduna eta %19,1 euskaldun hartzailea. Alegia, ia erdiak dira erdaldunak: %47. Euskaldunen bilakaerari dagokionez, 1991tik 2016 artean ia 10 puntu egin du gora euskaldunen portzentajeak, 631.384 euskaldun izatera iritsiz.

Adin tarteen arabera, ordea, portzentaje horiek aldatzen dira. Ezagutza tasarik baxuenak 50 urtetik gorakoak artean daude: lautik bat da euskalduna. 35-49 urtekoen artean euskaldun kopurua

handiagoa da (%33,2) eta 11 puntu igotzen da euskaldun hartzaileen kopurua, %26,7 izatera iritsiz. Baina erdaldunak oraindik ere %40 dira.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE. 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskaldunen kopurua modu esanguratsuan handitu egiten da 34 urtetik beherakoen artean: 25-34 adin tartean ia erdiak dira euskaldunak eta euskaldun hartzaileak %26,7. Alegia, lautik bat da erdalduna. Eta 16-24 urtekoen artean dago euskaldun portzentajerik handiena: %71,4 da euskalduna eta %17,6 euskaldun hartzailea. Alegia, hamarretik 1 da erdalduna. Aintzat hartzekoa da lan munduratzeko adina gero eta berantiarra dela (egun gutxi dira 18 urterekin lanean hasten direnak). Lan munduan murgilduta daudenak nagusiki 25-65 adin tartekoak direla aintzat hartuz, interesgarria da ikustea zein den ezagutza tasa, batez beste: %37,6 dira euskaldunak eta %22 dira euskaldun hartzaileak. Erdaldunak, beraz, %40,3 dira.


Euskaldunen bilakaerari adinaren arabera erreparatzen badiogu, ikus dezakegu adin tarte gazteenen artean dagoela bilakaerarik handiena. Hezkuntzak emandako uztaz hitz egin daiteke:

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE. 1991-2016 (%)



Herrialdeka joera orokor hori errepikatu egiten da: euskaldun portzentajea handiagoa da gazteagoen artean. Baina, herrialdearen arabera, argazkia aldatu egiten da.

### Hizkuntza-gaitasuna lurraldeen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

**Gipuzkoa** da euskaldun dentsitate handiena duen herrialdea: %50,6 da euskalduna, eta %17,3 euskaldun hartzailea. Alegia, 3tik 1 da erdalduna. Gainera, euskaldun portzentajea modu esanguratsuan da altuagoa 16-24 (%83,2) eta 25-34 (%66,5) adin tartetean. Erdaldunei dagokionez, 50 urtetik aurrerakoan artean portzentajea handitzen bada ere (%43,9), adinak behera egin ahala, erdaldun portzentajea jaisten doa, 16-24 adin tartean %8,5 izan arte.


**Bizkaian** euskaldunen portzentajeak jaitsi egiten dira: euskaldunak %27,6 dira eta euskaldun hartzaileak %20,04. Horrela, euskaraz ez dakitenak erdiak pasatxo dira (%52). Hemen ere euskaldunen portzentajerik altuenak adin tarte gazteen artean modu esanguratsuan handitzen dira: 16-24 adin tartean %66,8, eta 25-34 adin tartean %43. Azken adin tarte honetan, gainera, euskaldun hartzaile portzentajea %30,7koa da. Erdaldunak %50 baino gehiago dira 50 urtetik aurrerakoan artean. Adinean behera egin ahala, ordea, euskaraz ez dakitenen kopuruak behera egiten du, 16-24 adin tartean %11raino jaitsiz.

**Arabian** dago euskaldun dentsitaterik baxuena: %19,2 dira euskaldunak, eta ia beste horrenbeste euskaldun hartzaileak (%18,4). Alegia, erdaldunak %62,4 dira. EAEko euskaldun tasarik baxuena bertan dagoen arren, euskaldun portzentajea emendatzen bilakaerarik handiena duen herrialdea da: 65 urtetik gorakoan artean euskaldunak %4,4 badira ere, 16-24 adin tartekoan artean %60,1a dira (55,7 puntuko aldea). Adin tarte horretan, gainera, euskaldun hartzaileak %23,3 dira. Alegia, euskararik ez dakitenak %16,6. 25-34 adin tartean ere euskaldun eta euskaldun hartzaileen portzentajea batez bestekoaren gainetik dago (%35,2 eta %29,6 hurrenez hurren). Gainerako adin tartetean, ordea, erdaldunak %50etik gora dira (65 urtetik gorakoan artean %90,1 izatera iritsi arte).

## b) Erraztasuna:

Hizkuntza bat ezagutzea eta hizkuntza horretan eroso jarduteko erraztasuna edukitzea ez da gauza bera, eta horrek eragin zuzena dauka erabileran. Are gehiago lan kontuak edo zerbitzu eskaintza bat tartean dagoenean. Jarraian emango diren datuak euskaldunei dagozkienak dira (hizkuntza ezagutu gabe, ezin hizkuntza erabiltzeko erraztasunik eduki). Ikus ditzagun erraztasunari buruzko datuak:


Euskaldunak erraztasunaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskaldunen %26,8 errazago aritzen dira euskaraz gaztelaniaz baino. Bietan berdin moldatzen direnak, %29,3. Eta portzentajerik handiena erdaraz euskaraz baino errazago moldatzen direnen artean dago: %44. Bilakaerari erreparatzen badiogu, hiztun perfilaren aldaketa gertatzen ari dela ikus dezakegu:

Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Erdal elebidunen portzentajea da nagusiki gora egiten duena, eta euskaldun orekatuena ere goraka doa. Alegia, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen direnen portzentajea ia 8 puntu egin da behera.

Errepara diezaiegun adin tarteei:

Euskaldunen erraztasuna, adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


**Euskaraz errazago** moldatzen direnen artean, portzentajerik altuena 65 urtetik gorakoen artean dago (%44,8), eta baxuena 35-49 adin tartean (%20,2). Gainerako adin tartetean %25 inguru dira.

**Erdaraz errazago** moldatzen direnen artean, portzentajerik altuena 16-24 adin tartean dago: erdia baino gehiago dira (%55,7). Portzentaje horiek behera egiten dute gradualki adinean gora egin ahala, portzentajerik baxuena 65 urtetik gorakoen artean dagoelarik: %33.

**Euskaraz eta erdaraz berdin** moldatzen direnei dagokienez, portzentajerik handiena 35-49 (%34,8) eta 50-64 (%36,3) adin tartetean daude. Baxuena, aldiz, 16-24 adin tartean: %19.

Herrialdeka ere, errealitate ezberdina dugu:

Euskaldunen erraztasuna, lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016



Herrialdeka aztertuta, **Gipuzkoan** daude euskaraz erdaraz baino errazago edo erdaraz bezain ongi moldatzen direnen portzentajerik altuenak: orotara, %70,2: %35,9 euskal elebidunak, eta 34,3 dira elebidun orekatuak. Portzentajerik txikiena erdaraz hobe moldatzen diren euskaldunena da: %29,8. Erdal elebidun portzentajerik altuena 16-24 adin tartean dago (%34,9). Euskal elebidunei dagokienez, portzentajerik altuena 65 urtetik gorakoen artean dago (%47,4).


**Bizkaian**, aldiz, %54,7 moldatzen da errazago erdaraz. Alegia, erdiak baino gutxiagok dute erraztasun handiagoa edo berdina euskaraz erdaraz baino: %20,4 da euskal elebiduna eta %24,9 da elebidun orekatua. Erdaraz errazago moldatzen direnak nagusi dira 16-49 adin tartean. Euskaraz aritzeko erraztasun txikia dutenen portzentajerik altuena 16-24 adin tartean daude: %68 moldatzen da errazago erdaraz (%15,9 errazago euskaraz eta %16,1 bietan berdin). 25-49 adin tartean %58aren bueltan moldatzen dira errazago erdaraz. Euskaraz errazago moldatzen direnen portzentajerik altuena 65 urtetik gorakoen artean dago (%43,2).

**Arabian** dago erdaraz erraztasun handiagoa duten euskaldunen portzentajerik altuena: %70,8. Euskaldunen %6,7 moldatzen da euskaraz erdaraz baino hobe, eta %22,6 euskaraz erdaraz bezain ongi. Adin tarteei erreparatuz, 16-24 adin tartean dago erdal elebidunen portzentajerik handiena (%75,1). Halaber, euskaraz errazago moldatzen direnen portzentajerik baxuenak 16-24 (%5,9) eta 25-34 (%4,9) adin tartean daude.

### c) Erabilera

Nagusiki erdaraz beti erdaraz aritzen direnak %79,5 dira. Hala ere, geroz eta gehiago dira euskaraz erdaraz bezain beste edo gehiago aritzen direnak: 1991an %15,5 ziren eta 2016an %20,5 dira:


Euskararen erabilerearen tipologia. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hona hemen bilakaera herrialdearen arabera:

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Herrialde guztietan goraka egin da erabileran azken 25 urteetan, eta Gipuzkoan dago erabilera tasarik handiena.


Adinari erreparatuz, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gehien hazi da 16-24 adin tartean, eta horiek dira egun nagusi:

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE. 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Jarraian lankideekin, saltzaileekin eta bankukoekin euskara gaztelera beste edo gehiago erabiltzen dutenen datuak ikusiko ditugu, herrialdeka eta 25 urteko bilakaeran. Hiru eremu horiek hautatu ditugu, lan eremuarekin eta zerbitzuekin zerikusia dutelako.




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa (2016)

Oro har, lankideekin (%25,3) saltzaileekin (%20,8) eta bankukoekin (%20,2) baino gehiago erabiltzen da euskara. 25 urteko bilakaeran, batez beste 10 puntu egin du gora erabilerak lankideen arteko harremanetan, eta 5 inguru saltzaile eta bankukoekin. Gipuzkoan erabiltzen da gehien, eta Araban saltzaileekin eta bankukoekin (ia) ez da erabiltzen.

**d) Jarrera**


Arlo sozioekonomikoko euskararen plan estrategikoak euskararen sustapenean urratsak eskatzen ditu. Beraz, interesgarria da ezagutzea euskararen sustapenarekiko zer jarrera dute herritarrek. Datu orokorra da eskainiko dena. Izan ere, ez dago jasota lan munduan euskara sustatzeari buruzko iritzirik:

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Datu soziolinguistikoaren atala ixteko, interesgarri deritzogu adin piramideari begirada bat ematea.




2016ko Eustat-eko datuen arabera, langileen %30 baino gehiagok 50 urtetik gora dute. Adina 45 urtera murriztuz gero, berriz, %45etik gora.

Hortik ondoriozta liteke, ondorengo 10-15 urteotan langileriaren multzo handi batek erretiroa hartuko duela, eta beraz, lanpostu horietako asko belaunaldi berriek –eta ziurrenik, etorri berriek- bete beharko dituztela. Hain zuzen ere, aurrez aipatu bezala, euskaraz lan egiteko gaituta datozen belaunaldi berriek.

## 1.2 IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOA


Sarri aipatu ohi da lanerazten diren gazteak euskaraz ikasiak datozela eta lan mundua dela hizkuntza ibilbidea oztopatzen duena. Hezkuntza arloan DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako matrikulazioa hizkuntza ereduari dagokionez zertan den aztertuko dugu. Hauek dira azken ikasturteko matrikulazioak ereduak:



Iturria: EAS 2018

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


Datuek adierazten dute hizkuntza ereduari begiratuta, D ereduak nagusitzen ari dela derrigorrezko hezkuntzan. Hauek izan dira 2017-2018 ikasturteko DBHko matrikulazioak: %67,3 D ereduak, %24,1 B ereduak, eta %7,9 A ereduak. Hona ereduak bilakaera:



Iturria: EAS, 2018

**Batxilergoa:**

Batxilergoan ere D eredia nagusitzen ari da. Hona 2017-2018 ikasturteko Batxilergoko matrikulazioak: %63 D eredian, %4,5 B eredian, eta %31,9 A eredian. Hona ereduen bilakaera:




Iturria: EAS 2018

DBHko bilakaerarekin alderatuz, D ereduak antzeko joera izan badu ere, A eta B ereduetan dago aldea. A ereduak beherako bilakaera izanik ere, egun %31,9ko matrikulazioa du (DBHn %7,9koa), eta B ereduak nahiko bilakaera egonkorra badu ere (2001-2002an %1,7 eta 2017-2018an %4,5), DBHn eredu horretan dagoen matrikulaziotik urrun dago (%24,1).

**Lanbide Heziketa:**

D ereduak matrikulazioan duen nagusitasuna desagertu eta irauli egiten da Lanbide Heziketako matrikulazioari erreparatuz. Hona 2017/2018 ikasturteko matrikulazioa: D eredia %19,9, B eredia %13,9 eta A eredia %66,3. Hona ereduen bilakaera:




Iturria: EAS 2018

Ikus dezakegunez A ereduko matrikulazioa %84 ingurukoa izatera iritsi zen, eta egun beheranzko bilakaera badu ere, bilakaera hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan izandakotik urrun dago. D

ereduak, oro har, goranzko bilakaera izan badu ere, urrun dago DBHn izandakotik. B ereduaren matrikulazioa izan da baxuena, eta bilakaera egonkorra izan du, orain gutxi arte. Azpimarragarria da, ordea, azken hiru ikasturteetan 3 eredu-tako matrikulazioetan gertatzen ari dena. Izan ere, B ereduak bilakaera egonkorrekin apurtuz gora egin du (%2,3tik %13,9ra); A erudian beheranzko bilakaera azeleratu egin da (%75,2tik %66,3ra); eta D ereduaren goranzko joera eten eta beheranzkoa hasi da (%22,6tik %19,9ra).

Lanbide Heziketa izanik lan munduratzearan garrantzi handia hartzen duen ikasketa mota, eta ikusita euskarazko matrikulazioak duen tasa baxua (bereziki Derrigorrezko Hezkuntzarekiko konparazioan), interesgarri deritzogu ezagutzea euskaraz eskaintza handiagoa egiteko aukera dagoen, irakasleen hizkuntza gaitasunari dagokionez. Hona hemen erregimen orokorreko irakaskuntzetako irakasleak, hizkuntza eskakizunen arabera:



Iturria: Eustat 2018

DBH eta Batxilergoko irakasleen hizkuntza eskakizunekin alderatuz, 2. HE ezarria duten irakasleen portzentajea baxuagoa da Lanbide Heziketan. Alderik nabarmenena, honakoa dirudi: hizkuntza eskakizun ez duten irakasleen portzentaje altua: %24,1. Hala ere, irakasleen %68,3k izanik 2.HE, egingarria litzateke gaur egun Lanbide Heziketako euskarazko eskaintza handitzea, euskaraz gaitutako irakasle kopurua aintzat hartuz (gogoan izan D ereduko matrikulazioa %19,9koa dela).

### 1.3 UNIBERTSITATEA

Dokumentu honetan soilik Euskal Herriko Unibertsitateak egiten duen eskaintzaren berri jasoko dugu. Horretarako [Euskararen II Plan Gidariaren ebaluazio txostenean](#) jasotako 3 datu orokor baino ez ditugu ekarri, esanguratsuenak direlakoan:

- 2016/17 ikasturtean **Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa** %68,30 ikaslek egin zuten euskaraz.
- 2016/2017 ikasturtean EHU-n euskaraz matrikulatutakoak %51,5 izan ziren.
- 2016/2017 ikasturtean euskaraz eskainitako eskaintzari dagokionez, kredituen %82,6 euskaraz eskaini zen.

27. TAULA. Euskararen II Plan Gidariko graduetako kreditu kopurua eta ehunekoa hizkuntzen arabera (gradu amaierako lanak eta praktikak barne)										
Ikasturtea	Euskara		Gaztelania		Ingelesa		Beste hizkuntzak		Guztira	
	Kreditu kopurua	%	Kreditu kopurua	%	Kreditu kopurua	%	Kreditu kopurua	%	Kreditu kopurua	%
2013/14	25.343	65,6	34.716	89,8	1.848	4,8	220	0,6	38.639	100
2014/15	22.396	73,6	27.260	89,6	2.268	7,4	179	0,6	30.423	100
2015/16	20.863	80,5	23.286	89,9	2.394	9,2	161	0,6	25.912	100
2016/17	20.614	82,6	22.378	89,7	2.739	10,9	125	0,5	24.949	100

Ikus daitekeenez, azken urteetan euskarazko kredituen eskaintzan gora egin da, baina oraindik erdaraz eskaintzen diren kredituekiko 7 puntuko aldea dago (1.764 kreditu gutxiago euskaraz). Bestalde, aintzat hartzeko da Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa euskaraz egiten dutenen eta EHUn matrikula euskaraz egiten dutenen portzentajeen arteko jautzia (20 puntu behera). Txotena honakoa jasotzen du: *“Bai USEn zein unibertsitateko graduetan euskarazko matrikulazioak goranzko bilakaera nabaria erakusten du. Hala ere USE probak euskaraz egiten duten ikasleen ehunekoaren eta unibertsitatean euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoaren artean tarte nabarmena dagoenez, graduetan euskal adarreko matrikulazioa bultzatzeko neurriak hartzea justifikatuta dago, bereziki gizaratean profesional elebidunen beharra handia den arloetan”*

Amaitzeko, ondoko taulan jasotzen dira Fakultateka azken 4 urteetan euskaraz matrikulatutakoaren portzentajeak:

14. TAULA. Azken lau ikasturteetan unibertsitate sartzeko diren artean euskaraz matrikulatutakoaren ehunekoa (%)				
Ikastegiak	Ikasturteak			
	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17
<b>Arabako Campusa</b>	<b>53,7</b>	<b>59,0</b>	<b>57,1</b>	<b>57,4</b>
Farmazia Fakultatea	49,3	54,0	54,2	52,4
Letren Fakultatea	58,6	59,2	58,8	56,3
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Kirola)	79,3	76,2	72,3	85,2
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Hezkuntza)	80,3	85,3	85,3	93,4
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)	23,4	43,0	24,0	37,7
Lan-Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatea (Vitoria-Gasteiz)	57,6	69,9	63,7	57,9
Gasteizko Ingeniaritza Unibertsitate Eskola	28,5	29,9	23,7	22,9
<b>Bizkaiko Campusa</b>	<b>41,3</b>	<b>42,2</b>	<b>45,0</b>	<b>45,6</b>
Arte Ederren Fakultatea	41,0	40,1	41,2	34,8
Bilboko Ingeniaritza Eskola (I eraikina) <sup>1</sup>	37,8	38,5	38,4	40,9
Bilboko Ingeniaritza Eskola (II eraikina) <sup>2</sup>	33,9	35,5	42,0	41,9
Bilboko Ingeniaritza Eskola (II eraikina) <sup>3</sup>	24,8	28,9	38,2	32,7
Bilboko Ingeniaritza Eskola (Portugalete eraikina)	18,2	38,1	39,5	31,4
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	77,4	78,5	79,3	83,6
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	31,2	31,0	32,9	35,0
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	18,2	28,6	29,1	27,8



14. TAULA. Azken lau ikasturteetan unibertsitatera sartzen direnen artean euskaraz matrikulatutakoehunekoa (%) (jarraipena)				
Ikastegiak	Ikasturteak			
	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17
Lan-Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatea (Leioa)	25,2	17,8	27,2	27,4
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Erizaintza, Leioa)	38,2	36,2	52,1	46,3
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapia)	43,6	39,2	44,6	42,2
Zuzenbide Fakultatea (Bizkaia)	36,3	37,0	30,1	34,0
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	56,7	55,7	57,2	59,4
<b>Gipuzkoako Campusa</b>	<b>58,2</b>	<b>59,0</b>	<b>59,4</b>	<b>59,9</b>
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	52,0	54,1	41,7	52,2
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoa)	57,7	56,7	56	60,1
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	47,8	48,9	55,7	59,5
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)	72,6	74,3	69,3	55,7
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (I eraikina) <sup>4</sup>	59,8	63,8	63,1	61,0
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (II eraikina) <sup>5</sup>	98,5	99,2	100	100,0
Informatika Fakultatea	56,1	48,9	52,6	53,9
Kimika Fakultatea	62,0	67,1	66,3	58,5
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostiako irakasgunea)	64,9	65,7	70,6	67,0
Psikologia Fakultatea	49,2	46,5	43,0	41,0
Zuzenbide Fakultatea	30,9	32,7	31,0	37,7
<b>Guztira</b>	<b>48,1</b>	<b>49,8</b>	<b>51,0</b>	<b>51,5</b>


Aurrean esan bezala, batez beste euskarazko matrikulazioak %51,5 dira. Baina oso egoera ezberdinak daude Campusen eta Fakultateen artean. **Arabako eta Gipuzkoako Campusetan** euskaraz matrikulatutakoak erdiak baino gehiago dira (%57,4 eta %59,9 hurrenez hurren). Araban euskaraz matrikulatutakoak %50 baino gutxiago dira 7 fakultateetik 2tan (Ekonomia eta Enpresa Fakultatean %37,7 eta Ingeniaritza Fakultatean %22,9). Gipuzkoan, 11 Fakultateetatik 2tan da %50etik beherakoa euskaraz matrikulatutakoaren kopurua (Psikologia Fakultatea %41 eta Zuzenbide Fakultatea %37,7). **Bizkaiko Campusean**, aldiz, %45,6 dago euskaraz matrikulatuta batez beste. 13 ikastegietatik soilik 2 dira euskaraz matrikulatutakoak %50etik gora dituztenak (Hezkuntza Fakultatea %83,6 eta Zientzia eta Teknologia Fakultatea %59,4).

## 1.4 LAN MUNDUA

Lan munduaren eremura eramango dugu orain begirada, ikuspegi ezberdinetatik:


### a) Establezimenduak

Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduak jardueraren arabera (A10) aztertuz gero, establezimendu kopururik handienak *Merkataritza, Garraioa eta Ostalaritzaren* (%37,7) eta *Jarduera profesional eta laguntzaileen* %16,3 artean aurki ditzakegu.




Iturria: EUSTAT 2018

Bizkaian dago establezimendu kopururik handiena:



Iturria: EUSTAT 2018

Establezimenduen langile kopuruari erreparatuz gero, 10 langiletik beherako establezimenduak dira nagusi:




Iturria: EUSTAT 2018

100 langiletik gora duten establezimenduak nagusiki Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasunaren (%31,5) eta Industria, Energia eta Saneamenduen (%29.8) jardueretan aurkitzen ditugu.

## b) Enplegua

Enplegatuen erdiak pasatxo 4 jardueratan ari da lanean: %19,2 Manufaktura-industrian, %14,8 Merkataritzan, %9,4 Osasun eta gizarte zerbitzuetan eta %8,3 Hezkuntzan.



Iturria: EUSTAT 2018

Manufakturako industrian diharduten langileen kopurua altua da, sektore garrantzitsua gure ekonomian, nahiz herritarrekiko zerbitzu ematea apalagoa den kasu gehienetan. Honez gain, gure ekonomiaren ardatz garrantzitsua den heinean barrura zein nazioartera begira irudia ematen du, eta zein identitate agertzen duen hizkuntzaren biziraupenari begira ezinbestekoa da, prestigioa eman, beharra sortu eta balio eman diezaiokeelako tokiko hizkuntzari.

Merkataritzak administrazioak duen lehentasun maila bera du, irudia emateaz gain, herritarrekiko hartu eman zuzena eta etengabea duelako. Ostalaritzak, bestalde, langile gutxiago izanagatik ere, harreman estua du kanpo eta barne bezeroekin.



## a) Kontsumitzaileen dekretuaren eraginpekoak

[123/2008 Dekretuak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei](#) buruzkoak, ezartzen du bere eraginpekoak direla jarduera eta enplegatu kopuru jakin batzuetako establezimenduak. Hauek, hain zuzen ere:

EAEn eremuan, legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona juridikoak:

- Telefonía.
- Garraioa.
- Energia elektrikoa.
- Gas naturala.

EAEn kokatuta dauden jendeari begirako, produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimendu hauek:

- 250 langiletik gora dituzten enpresetakoak diren establezimenduak izatea.
- Jendeari salmentak egiteko gunearen azalera 400 metrotik gorakoa duten establezimenduak izatea, elebidunen proportzioa % 33 baino handiagoa duten udalerrietan edo Bilbon, Gasteizen edo Donostian kokatuta badaude.
- Bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak 15 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea.

[2015ean Eusko Jaurlaritzak berak egindako Dekretuaren betetze maila](#) neurtzeko azterketan ondorioztatu zen dekretua bete behar duten enpresen %44ak zuela dekretuaren berri, eta enpresen %22k baino ez zutela betetzen. Hona azterketa horretatik hartutako zenbait datu:

Hona datu esanguratsu batzuk:

- %39,4 euskaraz edo elebitan aritzen da bezeroarekin.
- Bezeroak elebitan artatzen EZ dituztenen artean, %36,3k zerbitzu elebiduna ematea erraza edo nahiko erraza ikusten du.
- %46aren arabera bezeroarekin harremana euskaraz edo elebitan edukitzea nahiko edo oso erraza da.
- %69k dio euskara nahiko garrantzitsua edo oso garrantzitsua dela langileak kontratatzean.
- %70ak uste du bezeroak euskaraz artatu ahal izateak abantailak dituela; eragozpenak dituela %14.
- Euskaraz aritzeak duen eragozpenik handiena langileak prestatu behar izatea da %67arentzat; kostu ekonomikoak igotzea %31arentzat; lana atzeratzea %7arentzat.
- %25ak adierazi du epe motzean euskara sustatzeko neurriren bat hartzeko asmoa duela.

## b) Euskara, sektore ekonomiko gisa



Badago sektore bat euskaratik eta euskaraz lan egiten duena. Batzuk euskararen beraren sustapena eta erabilerari lotutako zerbitzu eta jarduerak eskaintzen dituzte eta beste batzuk hizkuntzari hertsiki lotua dagoen produktua edo zerbitzua ematen dute, eta hori euskaraz egiten dute. Eusko Jaurlaritzak 2015ean [Euskararen eragin eta balio ekonomikoa](#) txostena aurkeztu zuen, eta aipatu jarduera hauek lau sektoreetan banatu zituen hauek: hizkuntzaren industria; Kultura eta hedabideen industria; Hezkuntza eta unibertsitateak; Administrazio Publikoa.

Ikerketa lan horren helburua da *“Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari euskarak egiten dion ekarpena ezagutu, euskarak sortzen duen aberastasun ekonomikoa neurtu eta euskara-sektoreen dimentsio eta balio ekonomikoa kuantifikatzea”*. Ondorio nagusi hau dakar azterketa lan honek: *“Euskararen normalizazio bidean hain garrantzitsua den gizarte eragileen ekimena eta lan boluntarioa errekonozitu ondoren, azterketa honek garbi erakusten du euskara euskal ekonomiaren jarduera-sektore bat gehiago dela; herri-administrazioetatik bideratutako jarduera publikoaz gain, euskarak badu merkatu gero eta zabalago bat, badago euskararen industria bat eta euskararekin lotura estua duten merkatu pribatuko jarduera horiek, euskal ekonomian enplegua sortzen duten jarduera-sektoreak dira”* Bada, txosten horretatik datu orokorrak ekarriko ditugu:


*“EAEko ekonomiak sortzen duen enpleguaren %6,3 eta Balio Erantsi Gordinaren %4,5 euskarari lotua dago. Sektore ekonomikoa gisa, erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %4,2 dagokio euskarari eta turismo sektoreak (BPGren %5,8) euskal ekonomian duen pisura hurbiltzen da”*.

Euskara-sektoreen eragin zuzena, zeharkakoa eta induzituaren azken emaitza makroekonomikoak honakoak dira:

- **Enplegua:** Euskal ekonomiako enplegu osoaren %6,28 euskara-sektoreek sortua da; EAEko enplegu osoa 893.952 da eta euskararena, enplegu zuzena, zeharkakoa eta induzitua ere kontuan hartuta, 56.142. Kopuru horretatik ia 43 mila lanpostu, euskararen jarduerak zuzenean sortutakoak dira, 4 mila eskas zeharkako eraginari dagozkionak eta beste ia 10 mila eragin induzituarenak.
- **Balio Erantsi Gordina:** EAEko ekonomiaren Balio Erantsi Gordinaren %4,5 euskararekin lotura duten jarduera-ekonomikoei lotua dago; ia 61 mila miloi eurokoa da (60.875.938 mila €) EAEko BEG guztira eta euskara-sektoreena berriz, 2.751 miloi euro (2.751.093 mila €).
- **Barne Produktu Gordina:** EAEko Barne Produktu Gordinaren %4,19 euskararekin zuzenean eta zeharka loturaren bat duten sektore ekonomikoei dagokie. 66.775.970 mila euro EAEren BPG guztira (2012 urtea) eta euskarari dagokiona 2.800.634 mila euro.

Amaitzeko, hona hemen euskara enplegua, azpi-sektoreei jarraikiz:

6. Grafikoa: Euskara-enplegoa, azpi-sektoreei jarraiki



Iturria: Siodecok landutako datuak, 2015.

## 1.5 EREMU SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO BALIABIDEAK

### a) Eremu sozioekonomikoan euskara plana edo ziurtagiria duten erakundeak

#### LANHITZ 2017

[LanHitz, lana eta hitza](#), euskara eta eguneroko lana uztartu eta indartzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimena da. Programa honen helburua enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea da, baina baita euskara entitatearen kudeaketa-sisteman txertatzea ere. Lanhitz deialdiaren bitartez diruz laguntzen dira entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko eta euskara modu integratuan kudeatzeko urtean zehar egindako ekimenak.

1997-2017 urte bitartean 459 enpresak parte hartu zuten LANHITZ programan (Iturria: HPS). Jarraian 20 urte horietako datuen laburpena:

Euskara-planak garatzeko diruz lagundutako 459 enpresa horien 32 Arabakoak (% 7), 180 Bizkaikoak (% 39) eta 245 Gipuzkoakoak (% 54) ziren eta 94.068 langilek lan egiten zuten. Enpresa gehienak Gipuzkoan kokatuta zeuden arren, langileei dagokienez ia erdi eta erdi banatzen ziren Gipuzkoa (% 46,9) eta Bizkaiaren (% 49,6) artean. Euskara planak dituzten enpresetako langileen % 3,5 ari ziren Araban lanean. Izaeraren arabera, enpresen laurdena inguru S.A. ziren (%28), beste laurden bat S.L. (% 25), ia beste horrenbeste kooperatibak (% 22) eta azken laurdena gainerako motetakoak (fundazioak, elkarteak...). Enpresaren tamainaren arabera, berriz, 1-50 langile dauzkatena %47 dira. 250 langiletik gorakoak, berriz, enpresen % 19 baino ez dira. Hala ere, 250 langiletik gorako enpresetan ari ziren langile guztien % 80 inguru. Jarduerari dagokionez, %32 industriakoak eta %68 zerbitzuetaoak.

Erabilera planak dituzten enpresak 92 udalerritan kokatuta daude. Enpresen herena hiriburuetan daude: % 18 Bilbon, % 14 Donostian eta % 5 Gasteizen. Gainerakoan, hauek dira udalerrri aipagarrienak, populazio gutxiago izan arren, enpresa asko daukatelako deialdi honen barruan.

- Gipuzkoan: Antzuola (7), Arrasate (33), Bergara (9), Elgoibar (11), Hernani (7), Irun (5), Oiartzun (5), Oñati (16), Tolosa (9), Usurbil (4) eta Zumaia (6). Irun izan ezik, gainontzeko herrietako euskaldun portzentajea % 55etik gorakoa da.
- Bizkaiari: Gernika-Lumo (8), Erandio (5), Leioa (4), Durango (5), Derio (3) eta Zamudio (10). Azken hauek garrantzitsuak izan daitezke bertan Parke Teknologikoa dagoelako. Bizkaiari enpresa gehienak Bilbon daude.
- Araban: Laudio (5). Hemen ere, Bizkaiari bezala, hiriburuan daude enpresa gehienak.

Begirada 2018an paratuz, hona zenbait datu:

	Entitate kopurua	Esleitutako laguntzak
Araba	5	46.165,00
Bizkaia	49	379.683,00



Gipuzkoa	82	1.224.152,00
	136	1.650.000,00

### BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA

Bai Euskarari ziurtagiria [Bai Euskarari](#) Elkarteak, euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan areagotzea helburuarekin, euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatu, aitortu eta pausoak ematen laguntzen dituen ziurtagiria da. Eskuratzeko-prozesuan elkarrearen teknikariek laguntzen dute prozesuan.

Maila ezberdinak daude:

- **“Euskararen bidean” ziurtagiria:** Euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.
- **“Zerbitzua euskaraz” ziurtagiria:** Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.
- **“Zerbitzua eta lana euskaraz” ziurtagiria:** Zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan hizkuntzatzat duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

Ziurtagiria duten entitateak 1362 dira (Iturria: Bai Euskarari Ziurtagirien Elkartea, 2018). Ziurtagiria da Euskal Herriko lurralde guztietara iristen den ziurtagiria:

Araba: 143  
Bizkaia: 252  
Gipuzkoa: 495  
Lapurdi: 176  
Nafarroa: 253  
Nafarroa Behera: 39  
Zuberoa: 4

### BIKAIN ZIURTAGIRIA

[BIKAIN](#) Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da. Esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen du. Izen ofiziala hau da: **BIKAIN, Euskararen Kalitate Ziurtagiria**.


Ziurtagiria eskuratu ahal izateko erakundeak ebaluazioa jaso eta gainditu behar du. Ebaluatzaileek Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jasotako adierazleak aztertuko dituzte euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzeko. Ebaluazioari dagokionez, EMEk bi ardatz ditu: Zerbitzu-hizkuntza eta Lan-hizkuntza.

Urte hauetan 368 ziurtagiri banatu dira: 147 goi-mailakoak, 142 erdi-mailakoak eta 69 oinarrizkoak.

Jarraian dituzue bi ziurtagiriak eta Lan-hitz batuta lurraldeka duten pisua. Era berean, 2017ko Eustateko datuak kontuan hartuta, 158.086 establezimendu zeuden EAEn. Ziurtagirietan eta Lan-



hitzen parte hartu duten establezimenduen %1 inguru da euskara plan edo ziurtagiria duena (eta jakitun izanda batzuk hiruretan parte har dezaketela). Dagoeneko euskaraz lanean diharduen sektorea aintzat hartuz (Siadecoren ikerketaren arabera 10.195 establezimendu) esan genezake 100 establezimendutik 7 direla euskara zerbitzu edo lan hizkuntza izateko erabakia hartu edo plan bat dutenak.



## b) Aurrekontuak

Eusko Jaurlaritzaren enkarguz Siadeco Ikerketa Elkarteak neurtu du Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek zenbat diru jarri duten 2016an euskara sustatzeko, eta diru kopuru horrek zer bilakaera izan duen azken urteetan.

Erakunde hauen datuak hartu dira aintzat: Eusko Jaurlaritza (haren menpeko sail eta erakunde autonomiadunak barne), hiru foru aldundiak, hiru hiriburuetako udalak, eta 5.000 biztanletik gorako udalherri guztietako udalak (68 udal).

**Taula: EAEko euskara aurrekontu kontsolidatua (2016)**


Erakunde-mota	Aurrekontua 2016	
	€	%
Udalak (udal funtsetatik finantzaturako euskara aurrekontua)	35.230.958	23,8
Hiriburuak (udal funtsetatik finantzaturako euskara aurrekontua)	8.843.245	6,0
Foru aldundiak	16.789.790	11,4
Eusko Jaurlaritza	86.975.067	58,8
<b>Euskara aurrekontu kontsolidatua</b>	<b>147.839.060</b>	<b>100,0</b>
<b>GUZTIRA</b>		

*Iturria: Siadeco 2017.*

### Euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera

Jaitsiera nabarmena izan zuten euskara aurrekontu likidatuak 2008tik 2012ra. Goranzko bidea erakutsi zuten 2014ko datuek, eta hori berretsi du 2016ko azterketak. 2012-2014 arteko gorakada handiagoa izan zen (%2,8), 2014-2016 artekoa baino (%1,4). Aurrekontu handiagoa dute udalek eta diputazioek, baina ez Eusko Jaurlaritzak: %4,9 murriztu du euskararako aurrekontua 2014tik 2016ra.


1. Irudia: Euskara aurrekontu likidatuen bilakaera (2006-2016), erakunde motari jarraiki (milioi €)



Euskara aurrekontu likidatuak %1eko pisua dauka aurrekontu orokorretan batez beste.

udalak: haietan egin du gorakadarik handiena euskara arloaren pisu erlatiboak —2010ean, adibidez, %1,9 zen, eta 2016an, %2,7—. Bestetik, Jaurlaritzak: azken hamar urteetako pisurik txikiena du euskarak aurrekontuan —2006an, %1,4 zen, eta 2016an, %0,8—. Hiriburuetako udaletan eta aldundietan egonkor dago portzentajea —Gasteizko Udalaren kasuan, bai, iguera bat nabari da—

2. Irudia: Euskara aurrekontuaren pisu erlatiboaren (%) bilakaera, erakunde motari jarraiki (2006-2016)



Iturria: Siadeco 2017


### Jarduera-eremuen araberako euskara aurrekontuak

- **Euskalduntze-alfabetatzea.** Euskara aurrekontuaren laurdena baino gehiago da helduen euskalduntze-alfabetatzera: %29,6. Dirutan, 44,4 milioi euro. Horren zatirik handiena, lau eurotik hiru, Eusko Jaurlaritzak jarri ditu: 30,7 milioi euro.
- **Irakaskuntza.** Aurrekontuaren ia bostena du (%18,1), 27,2 milioi euroekin. Jaurlaritzak jartzen du diru kopuru horren gehien-gehiena, %88,4: 24 milioi euro.
- **Administrazioa.** 2016an 16,9 milioi euro jarri dira administrazioa bera euskalduntzeko, euskara aurrekontuaren %11,3. Eusko Jaurlaritzak jarri du erdia baino gehiago (%55,5), eta atzetik ditu udalak eta hiriburuak (%29,2), eta aldundiak (%15,3).
- **Hedabideak.** Komunikabideetan euskara bultzatzeko jarri dira 10,1 milioi. Jaurlaritzak erdia baino gehiago ipini du (%54,8). Udalek eta hiriburuak %23,8 jarri dute, eta diputazioek, %21,4.
- **Aisia eta kirola.** 7,5 milioi euro destinatu dira aisiaren eta kirolaren eremuan euskararen erabilera areagotzera, euskara aurrekontu osoaren %5. Hiriburuak eta udalek jarri dute zatirik handiena: %93,6 (Jaurlaritzatik eta aldundietatik jaso dute zati bat).

**Aurrekontu baxuagoko gainerako eremuak:**

- ✓ Kulturgintza. 4,8 milioi euro, aurrekontuaren %3,2.
- ✓ Bestelako egitasmoak eta diru laguntzak (euskara elkarteak eta bestelako egitasmo orokorrak). 4,5 milioi euro, aurrekontuaren %3.
- ✓ Toki entitate eta mankomunitateentzako laguntza orokorrak. 3,8 milioi euro, aurrekontuaren %2,5.
- ✓ **Eremu sozioekonomikoa sozioekonomikoa. 3,4 milioi euro, aurrekontuaren %2,3.**
- ✓ Euskararen corpusa eta kalitatea. 3,1 milioi euro, aurrekontuaren %2,1.
- ✓ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. 2,5 milioi euro, aurrekontuaren %1,6.
- ✓ Liburugintza. 1,7 milioi euro, aurrekontuaren %1,1.
- ✓ Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak. 1,2 milioi euro, aurrekontuaren %0,8.
- ✓ Azterlan eta plangintza orokorrak. 844 mila euro, aurrekontuaren %0,6.
- ✓ Familia bidezko transmisioa. 724 mila euro, aurrekontuaren %0,5.
- ✓ Publizitatea. 180 mila euro, aurrekontuaren %0,1

**11. Irudia: Jarduera eremuen arabera euskara aurrekontuak 2016, erakunde motari jarraiki (mila €)**



Iturria: Siadeco 2017



## 2. ZER DAGO ABIAN EREMU SOZIOEKONOMIKOA ETA HIZKUNTZA ESKUTIK HARTUTA?

### 2.1 EUROPA

**Europar** eleaniztasuna nagusi da: Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak 24 badira ere (besteak beste espainola, frantsesa, alemana edo ingelesa), guztira 60 hizkuntza daude eta 40 milioi hiztun inguru dituzte (iturria, [Europar Batasuna](#)). Euskararen kasua, beraz, ez da isolatua. Eta errealitate hori izanik, ez da harrizkoa Europa mailan hizkuntza aniztasunari erantzuten dioten bi marko egotea: Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna eta Hizkuntza-Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

[Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna](#) (1992) da Europako Estatu kideek Europako erregio edo gutxiengoan hizkuntza historikoak babesteko Ituna, Europako kultura-aberastasuna eta ohiturak gorde eta garatzeko lagungarri dela kontutan izanik. Espainia da sinatzaileetako bat, eta bertan jasotzen diren konpromisoetatik hautaketa egiteko aukera du. Itunaren 13. artikulua “Ekonomia eta Gizarte-Arloari” dagokio, eta konpromiso guztiak hartuak ditu.

1996 urtekoa da [Hizkuntza-Eskubideen Deklarazio Unibertsala](#) (Bartzelonako Deklarazioa bezala ezaguna). 66 GKEk eta 41 PEN zentrok hizkuntza eskubideak eta bereziki hizkuntza gutxituak sustatzeko sinatutako adierazpena da. Bertan, arlo sozioekonomikorako 5 artikulua jasotzen dira. Besteak beste, honakoa: “Hizkuntza-komunitatearen lurraldean gizaki orok eskubidea du lurraldean kokatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktuez eta zerbitzuez ahozko zein idatzizko informazio osoa bere hizkuntzan jasotzeko, hala nola, erabilera-jarraitibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak”.

Deklarazioan jasotako eskubideak bermatze aldera, hizkuntza berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenena bermatzeko dokumentua da [Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa](#) (aurrerantzean Protokoloa). Gizarte eragileen proposamenekin eta Batzorde Zientifiko baten aholkuekin osatu da, eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuak egon daitezela hartu beharreko gutxiengo neurriak jasotzen ditu. Horren ondorioak Donostian 2016ko abenduan aurkeztu ziren Europako Kultur Hiriburutzaren baitan.

### 2.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

#### a. Administrazioa

Ikusiko dugunez, EAEko administrazio orokorretik toki administrazioa ari da jorratzen euskararen gaia eremu sozioekonomikoan. Hala ere, koordinazio falta dagoela esan genezake, eta ez dela toki



guztietan indar berarekin lantzen ari gaia. Ikus dezagun, labur, zer dagoen arau markoari eta ekimenei dagokionez Eusko Jaurlaritzan, Aldundietan eta Udaletan.

## Eusko Jaurlaritza

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan, gaztelaniarekin batera, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Horrela jasotzen du [Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea](#). Lege horrek euskarari erakundeen babesa ematen dio, eta gizarteko eremu estrategikoetan euskararen ezagutza eta erabilera normalizatzeko hizkuntza politikako ekimenak gauzatzeko bidea zabaltzen du. Bide horretatik etorri zen ere Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen [apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua](#).

Euskararen Legeak edota Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna–Espainian indarrean dagoenak- herri-aginteak behartzen dituzte euskararen erabilera arlo sozio-ekonomikoan bermatzeko neurriak hartzera. Eta ildo horretatik etorri zen uztailaren 1eko [123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei](#) buruzkoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legea garatzen duena. Haren arabera, EAEko herritarrek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eta enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko. Bide interesgarri ireki zuen horrela Jaurlaritzak, lehen aldiz arautu baitziren kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak. Hasieratik, baina, hutsuneak antzeman zitzaizkion aruari, eta hutsune horiek areagotu egin ziren 2011n hasierako erredakzioa murriztu zenean. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak, egun indarrean dagoen Dekretuaren hutsune nabarmenenak lau direla adierazi zuen: araua ez betetzeagatiko zehapenik ez du jasotzen; ezagutza soziolinguitikoaren arabera ezartzen ditu betebeharrak (hiriburuetan eta %33ko ezagutzatik gorako herrietan); soilik sektore batzuei eragiten die dekretuak; ez dago epe zehatzik araua betetzeko.

Araudiari lotutakoez gain, sustapenaren bidea ere jorratu du Eusko Jaurlaritzak, euskara zerbitzu-eta lan-hizkuntza izan dadin. Batzuk nabarmentzearren:

- [Administrazioa euskalduntzeko abian da VI. Plangintzaldia \(2018-2022\)](#).
- [ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Plana](#). (horren aurrekaria EBPN da, 1998an onartu zena). ESEPen arabera, arlo sozioekonomikoa helburu estrategikoa da.
- [Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016](#)
- [LanHitz programa](#) markoa, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera eta presentzia areagotzekoa.
- [Bikain, Euskararen Kalitate Ziurtagiria](#), esparru sozioekonomikoan euskararen erabileraren, presentziaren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzeko.
- [EUSLAN programa, 2015-2017](#), enpresa industrialetako lan-hizkuntza gisa euskara gero eta gehiago erabiltzeko prozedurak eta praktikak diseinatu eta gauzatzeko, barrura eta kanpora begira, ahozkoan, idatzizkoan eta hizkuntza paisaian.
- [Euskara saltoki handietan sustatzeko laguntza](#) deialdia



**Foru Aldundiei** dagokienez, hirurek ere azken urteotan haien lurraldean alor sozioekonomikoan euskara sustatzeko lan ildoak abiatu dituzte.

**Bizkaiko Foru Aldundiko** Gobernu Kontseiluak “Euskara Bizia” batzordea sortu zuen 2012an, Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen alde lan egiten duten elkarteak laguntzeko eta haien jarduerak koordinatzeko. Batzorde hori kide anitzeko organo aholku-emaile bat da eta honako eginkizun hauek ditu: euskararen alde lan egiten duten elkarten arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea; Aldundiaren jardunari buruzko neurriak proposatu eta bideratzea; gomendioak eta proposamenak egitea, eta elkarte eta erakundeen arteko harremanetarako eta komunikaziorako foro gisa jardutea. Batzordeak kide hauek ditu: Bizkaiko Foru Aldundiko hiru ordezkari eta erakunde hauetako ordezkari bana: Eudel, Alkarbide, Azkue Fundazioa eta euskararen alde lan egiten duten elkarteak, erakundeak eta pertsona ospetsuak. Euskara Bizia batzordeak alor sozioekonomikoan bide berriak jorratu behar zirela pentsatuta, [Bizkeus Batzordea](#) jarri zuen martxan Bizkaiko Foru Aldundiak 2016an. Euskararen presentzia lan munduan eta Lanbide Heziketan handitzeko helburuarekin eratu zen, eta ekarpenak jaso eta neurri eraginkorrak proposatzeko lantaldea da. Zenbait lan topaketa egin ondoren, identifikatu ziren euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko zeintzuk izango ziren lehentasunezko arlo estrategikoak eta eraginkorrenak euskararen erabilera handitzeko: [ostalaritza](#), [merkataritza](#), [komertzioa](#), osasungintza, gizarte arreta eta kultur zerbitzua.

Bestalde, alor sozioekonomikoan euskara sustatzeko [diru laguntzak](#) eskaintzen ditu.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** lerro zehatz bat du lantokietan prestakuntza-aldiak euskaraz egiteko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen diru-laguntzen deialdian. Helburua da Lanbide Heziketako Zikloetako eta Modalitate dualeko praktikak egingo dituzten ikasleak hartzen dituzten enpresek praktika horiek euskaraz egiteko aukera ematea. 2018. urtean, 72.000 euro banatu dira lerro horretan.

«Euskararen erabilera soziala normalizatzeko tokiko planak» lerroaren hartzailak, berriz, Gipuzkoako udal, mankomunitate eta tokiko garapen-agentziak dira, eta diruz laguntzen dira, besteak beste, arlo sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera sustatzeko garatutako egitarauak.

«Euskara sustatzeko proiektu eta jarduerak» lerroaren onuradunak dira irabazi asmorik gabeko entitate juridikoak, eta lerro horrek ematen du aukerarik arlo sozioekonomikora begirako lanik egiteko; adibidez, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Sustapenerako

Diru-laguntza orokor horiek ez ezik, diru-laguntza izendunak ere ematen dira urtero; kasu honetan, hitzarmenak sinatzen dira, eta arlo sozioekonomikora bideratzen dute laguntzaren zati bat edo laguntza osoa zenbait eskatzailek. Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteak, adibidez, laguntza jasotzen du esparru sozioekonomikoko eragileen azoka aurrera eramateko. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluarekin sinatutako hitzarmenaren kasuan, berriz, lan-programa orokorraren parte da arlo sozioekonomikoa.

**Arabako Foru Aldundia** 2015etik elkarlanean ari da SEA-Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara, Arabako Merkataritza Federazioa, Elektra Vitoria, Oreka It, Laneki eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearekin [Lanabes](#)– Araban Euskara Lanean egitasmoan. Helburu nagusia

da Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea eta handitzea. Horretarako hiru lan-ildo adostu dira:

1. “Lanabes – Araban Euskara Lanean” ekimena gidatu duen taldeari segimendua eta zabalkundea ematea.
2. Arabako sektore sozioekonomikoa euskararen erabileraz sentsibilizatzea. Komunikazioa.
3. Era guztietako entitateak eta pertsonak inplikatzeko, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko.

World kafea, Lazarraga sariak, LANPRES eta LANENPRES gidak, Araban BAI kanpaina eta praktika onak dira, enpresetako pilotajeekin batera, abian dauden proiektuak. Azken horien funtsa da, metodologia ulergarri eta pilotaje erraz eta doako baten bitartez, enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko laguntza eskaintzea, zerbitzua eta lan hizkuntza izateko ibilbidea zehazten.

2018ko ekainaren 4an arlo sozioekonomikoan lanean jarraitzeko, helburu hauetan sakontzeko eta aurrera begira jartzeko [hausnarketa saio](#) bat burutu zuten.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioari** dagokionez, udalek ESEPen barruan lantzen dute alor sozioekonomikoa, hala erabakitzen dutenean. Hori dela eta, herri guztiek ez dute lantzen, eta guztiek ez dituzte helburu berdinak lantzen. Askok diru-laguntza lerroren bat izan dezakete, [errotulazioa euskaraz jartzeko](#) esate baterako. Baita [itzulpen zerbitzuaren laguntza](#) jasotzeko ere. Bestalde, merkataritza planak dira nagusiki udal mailan landu direnak ([Zornotza](#), [Gasteiz](#) edo [Goierri](#), adibidez). Enpresetan euskara planak abiatzeko sustapen lana ere egiten da zenbait udaletan, baina gutxiago dira hauek: [Irun](#) edo Enkarterriak dira horietako batzuk. Bestalde, [Oiartzun](#) eta [Urola Kostako](#) mankomunitatean enpresa txikietan (10 langiletik behera) euskara planak egiteko sustapena egiten da. Amaitzeko, laneko praktikak euskaraz egiteko lanketa ere egiten da, [Oarsoaldean](#) esate baterako.

## b. Administrazioaz gaindiko erakundeak

**Euskalgintzak** ere egina dauka hizkuntza eskubideak bermatzeko proposamena, 2016ko Protokoloaren jarraipena den [Protokoloaren Euskal Herriko garapenaren](#) bidez (2018an egina, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak gidatu du prozesua). Alor sozioekonomikorako 4 atal (Araubidea; Hizkuntza gutxituak kontsumo harremanetan; Hizkuntza gutxituak lan eremuan eta lan merkatuan; Enpresen gizarte erantzukizuna) eta 17 neurri proposatu dituzte. Besteak beste, herritarrek zerbitzuak hizkuntza gutxituan jasotzeko eskubidea legez babestea, edo merkataritza-jardueretan hizkuntza gutxituaren erabilera bultzatzeko marketin- eta publizitate-jarraibideak sustatzea.

Eta hori ez da proposamen bakarra, lehenagokoa da [“Lan mundua euskalduntzeko adierazpena”](#) (2013). Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko bazkideak diren hizkuntza aholkularitzek elkarlanean egindako hausnarketaren emaitza da: AHIZE, Artez, Elhuyar, Emun eta I-berba, Ba Euskarari Ziurtagirien Elkartearekin batera.

Esanenezake, hausnarketa eta proposamen hau egiteko muina hemen laburbiltzen dela: “(...) hezkuntza-arloa euskalduntzeko hamaika eragilek egindako inbertsioak (bai diru aldetik, bai ekimen eta ilusio aldetik) ez du segidarik izan arlo sozioekonomikoan, eta horrenbestez, antzu gelditzen da. Gero eta gehiago dira euskaraz ikasi duten eta trebatu diren pertsonak, belaunaldi berriak prest daude euskaraz lan egiteko, baina, lan munduak horretarako aukera gutxi ematen die”. Eta horren ondorioak, herritarrengan modu ezberdinetan gauzatzen dira: kontsumitzaile eta langile gisa.

Egoerari buelta emateko, eragile ezberdinei dagokiena jasotzen da bertan: langileei dagokiena, enpresei dagokiena, bezeroei dagokiena eta administrazioei dagokiena. Baita euskalgintzaren ekarpena prozesu horretan zein izango den ere.

Hausnarketa horretaz harago, tresnak ere abiatu ditu euskararen mugimendu sozialak alor sozioekonomikoan eragiteko. Kontseiluak berak [Euskaragileak](#) (euskara plan aurreratuak dituzten enpresen elkargunea) edo [Baduzu](#) (euskaraz kontsumitzeko espazioak bilatzeko aplikazioa) abian ditu. Eta ezagunena eta ibilbide luzeena duena, hain zuzen ere, [Bai Euskarari Ziurtagiria](#) da. Kontseiluak sortu zuen 2000. urtean, baina Bai Euskarari Elkarteak da proiektuaren kudeaketaz arduratzen dena, 2007tik. Bere bitartez alor sozioekonomikoko entitateen arteko elkarlana sustatzen da, euskarak eremu berriak bete ditzan. **Bai Euskarari Ziurtagiria** prozesu parte-hartzaile, dinamikoa eta planifikatu baten emaitza da eta erabiltzaile guztien ekarpenak jasoz etengabe hobetzen ari da. Urte hauetan Bai Euskarari Elkarteak proiektua sendotzeko, hobetzeko eta hedatzeko pausoak eman ditu, gizartearentzat egitura erreferentea sortuz eta hauspotuz. Hala, proiektu ezberdinak garatzen ditu urtean zehar. Besteak beste, [Enpresarean](#), eta [Lansarean](#). Lehena, euskararen normalizazioan lanean ari diren enpresak sartzeko egitasmoa, bigarrena profesional euskaldunentzako lan ataria.

2018ko udazkenean egingo da **Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua**, [Geroa Elkar-Ekin / El futuro que nos \(re\)une / Notre futur ensemble](#) lemapean. Aurten betetzen den Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenako ekitaldi nagusia izango da.

Kongresuan, bost gai estrategikoren inguruko lanen emaitzak aurkeztuko dituzte. Herrialde osoan hiru urtez garatu dituzte lanak. Hausnarketa-prozesu horretan profesionalek eta adituek, gizarte zibilak, gizarteko, politikako eta ekonomiako eragileek, erakunde publikoek eta abarrek hartu dute parte. Gai horietako bat [“Euskararen eszenarioak elkarrekin eraikitzen”](#) izango da. Interesgarria izango da lan hori aurkezten denean bertan esandakoei erreparatzea.

Adierazgarria da, halaber, euskarak eta lan munduak sortzen duten interesa eta aitortzen zaion garrantzia. Izan ere, hainbat eta hainbat dira gaia lantzen duten ikerketak eta lanak. Bi iturri iruditzen zaizkigu bereziki emankorrak euskara eta lan mundua uztartuz ematen dituzten lanketengatik: [Asmoz Fundazioaren HIZNET Gradu Ondokoaren sakontze egitasmoak](#) eta [Soziolingustika Klusterra](#): bai [BAT Aldizkaria](#)n argitaratzen diren artikuluekin, bai euskara eta lan mundua gaia hartuta landutako [monografikoekin](#). Berriaz aipatzekoak izan daitezke [ERALAN Proiektua](#) (hizkuntza normalizaziorako planak onartuta dituzten lan munduko erakundeetan euskararen erabileran eragiten duten aldagaiak identifikatzea, eta horietan positiboki eragiteko metodologiak sortu eta inplementatzea) eta [AldaHitz](#) ikerketa (aztergai nagusia hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak dira, eta ikerketa ekintzarekin uztartuz aritzen gara zeregin horretan. *Eusle metodologia* da hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko eta ikertzeko proiektuan garatu den tresna nagusia).

Eta amaitzeko, euskararen sektore ekonomikoa bera aipatzekoa da. Izan ere, lan munduan arnagune diren hauek, elkartzeko eta koordinatzeko guneak sortuak dituzte. Horietako bat [Langune](#) da,



Hizkuntzen Industriaren alorreko Euskal Herriko enpresen elkarte. Elkarte hau 2010an sortu da eta itzulpengintza, edukiak, irakaskuntza eta hizkuntzen teknologiaren alorreko 35 enpresatik gora elkartzen ditu.

Bestalde, **enpresa arloan** ere badira koordinaziorako guneak:

Horietako bat 2006tik **Mondragon Korporazioan** euskara planekin ari diren kooperatibek dituzten batzordeak dira. Haien zeregina da inguruan eragitea, euskara planak gehitzea, MONDRAGONen euskararen arloari buruzko gaiak hizpide izatea eta, batez ere, ezagutza (autoebaluazioak, esperientziak...) zenbait egitasmoen antolakuntza partekatzea. Lau batzorde dituzte eta partaidetzari dagokionez, batzordeak ez dira beti mugatu izan Korporazioko kooperatibetara: Araban, adibidez, bere garaian Cegasak parte hartu zuen eta egun partaide dira Visesa, Hazi eta RPK; Lea-Artibain Azaro fundazioak eta Herribixik hartzen dute parte; Goierri batzordea soilik Korporazioko kooperatibekin osatuta dagoen arren, kooperatiba batzordekideek eskualdeko Ingudea elkartean ere parte hartzen dute. Eta Nafarroan ere bada batzordea.

Beste bat, Ingudea 2011n sortu zen eta, elkarlanean, Goierriko enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko bidean pausoak ematen ari dira. Bi hilean behin elkartzen dira. Hainbat arlo, ezaugarri eta neurritako enpresetako kideek parte hartzen dute batzordean eta normalizazio bide horretan ere oso ibilbide ezberdinak dituzte, bakoitza bere neurrian eta abiaduran ari da aurrerapausoak ematen. Taldearen helburua elkarlanean jardutea da. Horrela, indar metaketa aprobetxatu, lan-ildoak definitu eta elkarrekin ekintza bateratuak egiteko. Hiru helburu nagusi dituzte: ezagutza partekatzea, eskualdean eragitea eta Goierriko gainerako enpresak bertara erakartzea.

## 2.3 KATALUNIA

Atal hau amaitzeko, interesgarri deritzogu **Katalunian** alor sozioekonomikoan indarrean dagoen araudia jasotzea eta garatzen ari diren ekimenen berri izatea. Araudiari dagokionez, hiru lege nagusiren bidez arautzen da arlo sozioekonomikoan katalanaren erabilera: [Llei orgànica 6/2006, de 19 de juliol, de reforma de l'Estatut d'autonomia de Catalunya](#); [Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística](#); [Llei 22/2010, de 20 de juliol, del Codi de consum de Catalunya](#).

[Lege garapena](#) 4 Errege Dekretu, 6 Dekretu, 5 Lege, Lege Organiko 1 eta 2 Agindu bidez egin da.

Honela laburbildu daitezke lege markoaren helburuak:

Bezerearen arreta: kontsumitzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izatea bermatu behar da, eta publikoari irekita dauden enpresek eta establezimenduek kontsumitzaileak artatzeko nahikoa hizkuntza gaitasun duten langileak izan behar dituzte.

Informazioa eta dokumentazioa: enpresek katalanez izan behar dituzte idatzizko euskarriak (errotulazioa, katalogoak, aurrekontuak, fakturak...).

Etiketajea eta jarraibideak: gutxienez katalanez egin behar dira kontsumo eta maneirako etiketajea eta beharrezko informazioa biltzen duten euskarriak.



Lan eremua: Lan hitzarmenetan eta enpresa hitzarmenetan langileen katalanaren ezagutza sustatzeari begirako klausulak izan ditzakete, baita lantokietan erabilera bermatzeari begira ere.

Eta hau betetzeari begira, bi mailatan lantzen da arlo sozioekonomikoa:

- Makroa, [Generalitat de Catalunya](#)ren bidez.
- Mikroa, [Consorti per a la Normalització Lingüística](#)ren bidez.



## 3. HAUSNARKETARAKO IDEIAK

### 3.1 PATXI SAEZ

**Patxi Saezek** idatzitako "Elefantea ikusi" artikulua hausnarketaren atalaren hasieran kokatu nahi izan dugu (kronologikoki lehen ez bada ere), bertan esku artean dugun aferaren muina lantzen dela uste dugulako. 2015ean mahai gainean jarri zuena, funtsean, hau izan zen: azken 50 urteetan euskarak hainbat alorretan (kulturgintzan, hezkuntzan...) loraldia bizi izan duen arren eta inoizko euskaldun kopuru handienak izan arren, erabileran herren egiten duela. Eta herren egiten duela bereziki lan munduan: "Gaur egun euskararen historiako gazteriarik prestatuena eta euskaldunena iristen ari da Euskal Herriko lantokietara eta, tamalez, eskolak euskaldundu duena lan munduak erdaldundu egiten du". Horri gaineratzen dio lan munduak pertsonongan duen garrantzia: "Egunak dituen 24 orduak bana ditzagun hiru zortzikotan: zortzi ordu lo egiteko, zortzi lanerako eta zortzi ordu otordu, familia eta lagunarterako. Euskaraz bizitzea baldin badugu azken helburua ezinbestean lantokiei erreparatu behar diegu, izan ere, esna egiten ditugun orduen erdiak lanean egiten baititugu. *Euskaraz bizi* nahi badugu lan mundua irabazi beharra dugu euskararentzat". Hau da, urteotan egindako ahaleginak emaitzak emango baditu eta jarraibidea izango badu, pertsonen euskalduntzeaz harago espazioen euskalduntzeri ekin behar zaiola. Eta hori dela planteatzen du euskararen normalizazioak bizi duen bidegurutze honetan, ezin bestean eta berandu baino lehen, lan munduaren euskalduntzeari estrategikotasunez ekin behar zaiola.

### 3.2 JOSE MARI ZENDOIA

Erritmoa hartzen jarraitzeko, **Jose Mari Zendoia** EHuko ekonomia irakasleak 2000 urtean egindako tesitik hainbat ideia hona ekartzea interesgarria deritzogu. Izan ere, "Hizkuntza gutxituak eta ekonomia: euskararen kasua" du izena lanak, eta gutxitan aztertu dira bi diziplina hauek elkar hartuta: euskara eta ekonomia.

Lanak ia 20 urte ditu, eta, akaso, garai hartaz ematen dituen euskararen datuak zaharkituta geratu dira (gainera, Eusko Jaurlaritzaren 2015eko "Euskararen Eragin ekonomikoa" txostenean datu eguneratuak daude, aurreraxeago ikusiko dugunez). Baina datu horiek baino, lanaren planteamendua bera eta eskaintzen digun ikuspegia da interesgarri deritzoguna esku artean dugun ariketarako. Eta hori dela eta ekarri nahi izan ditugu lan mardul horrek jasotzen dituen zenbait ideia eta erreferentzia.

"Argi dagoena zera da: gaur egungo unibertsalizazio prozesua mehatxu itzela da eremu urriko hizkuntzentzat (32. Orr)". Eta ez hori bakarrik, "Lan munduak dituen zailtasunengatik, bera izaten da azkenetakoa eremu urriko hizkuntzak suspertzeko politikak diseinatzen direnean, baina edozein hizkuntzaren berreskurapena ezinezkoa da lan mundua ahanzi egiten bada. Ez bakarrik hizkuntzaren normalizazioa erabat burutuko ez delako, baizik eta normalizazio bera ere ezinezkoa delako: hau da hautsi beharreko sorgin-gurpila. (33.orr)"

Zendoiak aditzera ematen digunez, "hizkuntza eta ekonomia gaitzat dituzten ikerketa-lanen artean, batean baino gehiagotan topatu daitezke hizkuntzen eboluzioari aipamen bereziak egiten dizkietenak. Hauen artean, batzuek garapen ekonomikoa eboluzionismoaren teoriak ulertzen dute,



egoera berrietara egokitzeko ahalmen handien dituzten hizkuntzak izanik gainerakoak ordezkatzu joango direnak. Tesi hauen artean Breton eta Mieszkowskik 1977. urtean argitaratu zuten “Elebitasunaren Ekonomia” izenburuko artikulua, eta Coulmasek 1992an ateratako “Language and Economy” liburua (Hizkuntza eta ekonomia) daude. Idazle hauek, argi dagoenez, liberalismo linguistiko-ekonomiko gordina defendatuz, aberastasuna handitzeko errezeta ezagun bat aldarrikatzen dute: mundu osoan trabarik gabeko merkatu bakar bat lortu behar da, eta ondorioz, hizkuntza bakar bat hedatu, ingelesa hain zuzen”.

Beste aldean beste ikuspegi bat dagoela diosku, etnizista deiturikoa, eta planteamendu horretan, hizkuntzaren ezaugarri nagusia pertsona bat bere hizkuntz taldearen kide sentitzearena da. Hizkuntza gutxituen erabilera, enpresan bertan lanerako tresna den hizkuntza izateaz gain, erabilera horrek enpresaren jardueran sor ditzakeen laneko giroagatik eta langile eta bezeroen gogobetetzeagatik da preziatua.

Eta azken bide honi heldu dio Europar Batasunak. Horren adierazle da “EUROMOSAIC” TXOSTENA (1992an Europako Komisiaok, garai hartan Batasuneko kide ziren 12 estatueta gutxitutako hizkuntza taldeei buruzko ikerketa). Euromosaic txostena ez da hizkuntza gutxituei buruzkoa, baizik eta hizkuntz taldeei buruzkoa, azken hauek talde sozial gisa hartuta. Ikerketa bera European garatzen ari zen berregituraketa sozial, kultural, ekonomiko eta politiko orokorrari lotuta dago.

“Kontuan hartzen da azken mendeetan, Europako Estatuak sortu eta sendotu diren heinean, indarrean egon den diskurtsoak homogeneousasun kultural zein linguistikoa goraiatzeko zituela, garapen eta progresoarekin baldintza zirelakoan. (...) Azken aldirian, berriz, beste diskurtso bat gailentzen ari da, Europako etorkizunerako aniztasunak zein giza-kapitalak duten balioa azpimarratuz. Zentzu honetan, hizkuntz talde gutxituek garrantzi berria hartzen dute, Europako oparotasunaren gain egin ditzaketan ekarpenei esker. Azpimarragarria da ez direla soilik hizkuntz talde gutxituak honelako diskurtsoa bultzatzen dutenak, baizik eta Europako ikerketa eta politika buruek ere errebindikatzen dutela ikuspuntu bera”. (62.orr)

Beste hau ere nabarmentzekoa iruditzen zaigu: “Enpleguaren nazioarteko merkatuan denek ulertuko duten hizkuntza baten beharra dago, normalean hizkuntz hori ingelesa delarik. Dena den, tokian tokiko enpleguaren merkatuek, sektore publikoan zein ekimen pribatu gehienetan, ez dute lotura gehiegirik edukitzen nazioarteko merkatuarekin, eta bertan Estatuak hizkuntzaren bat erabiliko da, kasu batzuetan posible izanik hizkuntza gutxituen bat izatea. Dena den, sortutako Merkatu Bakarrak, Estatueta merkatuen desagerpena dakar, eta horrek periferian dauden talde gutxituengan eragin sakonak eduki ditzake”. (66. Orr).

Ohartarazpen hori emanda, txostenak jasotzen duen beste ideia bat ekartzea interesgarri deritzogu: “Besteak beste, dibertsitateak gizaratearen jakintzan eta berrikuntzan eduki dezakeen garrantzia azpimarratzen da, dibertsitatearen murrizteak komunitate osoaren jakintza mailarentzat mehatxua izan daitekeelako, hala nola ezagupenak eman eta jasotzeko eragozpena. Sistemen aniztasuna nahitaezkoa da berrikuntzarako, eta hau Europako Batasunaren integrazioarako funtsezko argumentua da: sistema desberdinak elkar lotzen dira espazioan zehar berrikuntzarako gaitasuna bultzatzeko, bi prozesu paralelo bihurtuz integrazio europarra eta tokiko sistemen garapena. Dibertsitatearen oinarritzko osagaia bizimodu desberdinen existentzia da, eta bizimoduei lotuta, noski, kultur aniztasuna”. (72. Orr)



Zendoiak laburbilduz dio: “ikuspegi honetan hizkuntzek bi zeregin nagusi dituzte Europako integrazioan eta bere garapen ekonomikoan: integrazio eta garapen horiek bultzatuko dituzten taldeen kohesiorako elementuak dira, eta errealitatea adierazteko eta ulertzeko aniztasunaren ispilu dira. Beste hitz batez esanda, berrikuntza prozesurako beharrezkoa den giza-kapitalaren oinarri izanik, hizkuntz dibertsitateak giza-kapital aberatsagoa bermatzen du: “Europako Batasunak, beste potentziekiko duen abantailetakoa bat bere aniztasuna izanik, abantaila hori gorde eta profitatu behar da. Azken finean, aniztasuna europar guztien ondasuna da eta”. (73. Orr) “Horregatik Estatuak parte hartu behar du eraldatze prozesu hau dibertsitatearen aurkakoa izan ez dadin, horretarako hizkuntza gutxituak instituzionalizatuz nolabait, beren erabilera normalduz hizkuntza nagusiak dagoeneko irabazitako esparruetan.” (90. Orr)

Horiek, Euromosaic txostenean jasotakoez. Eta beste lanketa interesgarri bat ere egiten du Zendoiak, hizkuntza gutxituen merkatua eta baliagarritasunari buruzko ekarpen teorikoak hurbiltzen baititu. Teoria ekonomikoak eskaintzen dizkigun ereduetan hizkuntzaren faktorea gutxitan aztertu dela dio, eta horien artean hiru autoreren izenak azpimarratzen ditu: Toussaint Hocevar, Conrad Sabourin eta François Grin.

Autore hauen ekarpenak Zendoiairenean lanean laburbilduta eta erreferentzia osatuagoekin aurki daitezke. Guk dokumentu honetara euskararen kasuarekin azterketa eginda, teoria horietatik esanguratsuak iruditu zaizkigun ideiak batzuk baino ez ditugu ekarri. Esate baterako, Conrad Sabourin-ena, 1985eko “La théorie des environnements linguistiques”en jasotakoa. Bertan, ordura arte askotan ikerketa gai izandako Quebeceko lan merkatua oinarritzat hartuz, langileengan lanpostuen ingurune linguistikoaren eraginaren ondorioak eredu teoriko batez azaldu egiten dira, tresna matematiko sakonez lagunduta. Lan horren ondorio nagusia da ingurune linguistikoak garrantzia eduki dezakeela zenbait lanpostu betetzen dituzten langileen produktibitate-mailan, langilearen hizkuntz gaitasunaren arabera. Langileak bere satisfazioa handitzen du bere hizkuntzaren erabilera bermatzen dion ingurunean. (126.orr)

Beste bat, Hocevarren hipotesietako bat da. Baina hipotesi horretan sartu aurretik, beharrezkoa da lan honetan “hizkuntza” eta “merkatua”z Zendoiak egiten duen gogoeta jasotzea:

### **a) Hizkuntzaren merkatua. (35.orr)**

“Hizkuntza desberdinetan sortutako antzeko ondasunen arteko kostu diferentziak bi arrazoiengatik sortzen dira, oro har: gutxieneko hizkuntz gaitasuna duten langileak aurkitzeko eragozpenak ala erraztasunak, eta gehiagotan, hizkuntza gutxituan sortutako ondasunen ezintasuna errendimendu beherakorren legez profitatzeko, beren merkatuen tamaina txikiagatik.”

Lehen arrazoiari dagokionez, hizkuntza gutxituek beste hizkuntzek baino lan merkatu txikiagoak dituztela aditzera ematen du, eta horretaz gain, gerta daitekeela langile horiek beren hizkuntzan gaitasun eskasagoa edukitzea hizkuntza normalduetako langileek baino. Kasu horretan, lan indarraren eskasiak soldata handiagoak behartuko litzukeela dio, ceteris paribus. “Hala ere, euskararen kasuan behintzat, badirudi beste zenbait faktoreren eraginez (agian eskariaren urritasuna) soldatetan ez dela aipatu erlazioa gertatzen. Ez hori bakarrik, euskarazko ondasunen lan eskua gutxiago ordainduta dago gaztelaniazko edota frantsesezko ondasunen lan esku alderagarriarekiko.”





Bigarren arrazoiari dagokionez, eskari-eskaintzaren analisia kostu erlatiboen garrantzian erreparatuz egitea ezinbestekoa dela diosku, hizkuntza gutxituetako ondasunak subentzionatzeko politika ezarri ahal izateko, eta merkatu gutxituek jasan behar duten egoera desberdina parekatzeko.

## b) Hizkuntza, sektore ekonomiko gisa (37.orr)

“Har dezakegu hizkuntza aldagai makroekonomiko gisa, aldagai honek nolabaiteko garrantzia edukiko duelarik Barne Produktuan. Garrantzi horren neurketa monetarioa interesatzen zaigu, hizkuntzaren inguruan diharduen sektorea mugatzeko. Hizkuntza gutxituen egoera eta osasuna neurtzeko, honelako analisiak burutzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, ahal izanez gero, inguruan duten hizkuntza nagusiek beren inguruan sortutako sektorearekin alderatuz”. Lan honetan ariketa hori egiten da, bi aldagai nagusi kontuan hartuz: urteko fakturazioa eta sortutako enplegua. Eta lanaren amaieran ondorioztatzen du “gaur egun beren produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresa eta erakundeen kopurua nolabaiteko garrantzi erlatiboa lortzera iritsi dela. Bestalde, enpresa hauek sortzen duten aberastasuna ere euskal egitura ekonomikoan pisu espezifiko izatera heldu dela eta enpleguaren aldetik, arlo honetan diharduen pertsona kopurua geroz eta handiagoa dela: “Aurrekoarengatik, esan genezake euskarazko produktu eta zerbitzuen arloa (ekoizpena, kontsumoa, enplegua,...) sektore ekonomiko gisa uler daitekeela.” (156. orr)

Bereizketa hau aintzat hartuz, gatozen Hocevarren hipotesira: “kapitalismoaren lehen fasean konkurrentzia perfektuak ahalbidetzen du enpresek eskala-errendimenduak limiteraino erabiltzea, eta ondorioz, hizkuntza nagusiko produktuek eskari handiagoa dutenez, oreka prezio txikiagoak edukitzea, ekoizpen honetara bultzatuz ere hizkuntza gutxituko kontsumitzaileak, azken hauek beren baliagarritasuna hobetuko dutelako hizkuntza nagusiko produktuak erosiz”. Egileak dioenez, “kapitalismo modernoan nagusitu den konkurrentzia monopolistikoan, enpresek diferentziatu egiten dituzte beren produktuak, eta orduan hizkuntza gutxituetako produktuek, bereziak izanik, beren merkatu propioan bere prezioak dituzte, eta prezio hauek txikiagoak izan daitezke”. (129.orr). Zendoiak dio Hocevarrek planteatzen duen eredia oso ekarpen interesgarria dela euskarazko ondasunak ekoizten dituzten enpresen estrategiak finkatzeko garaian: “Merkatua aztertu beharko litzateke eskarien elastikotasun mailak ezagutzeko, kostuen egiturak alderatu behar dira, eta hau guztia balizko aliantzak zein enpresa-taldeekin eta zein esparrutarako egin beharko lirakeen erabakitzeko garaian oso baliagarria izan daiteke. Eta orain arte adibide gisa testu-liburuen argitalpena aipatu badugu ere, beste sektoreetan jarduten diren euskalgintzako enpresek (prentsa edo diskogintza moduko sektore tradizionaletatik hasi eta teknologia berrietan espezializatu diren Interneteko produktuen eskaintza egiten dituzten arte) birplanteatu ditzakete beren estrategiak, gaztelerazko –edo ingelesezko zein frantsesezko– antzeko produktuak ekoizten dituzten enpresekin lehiatzeko edo akordioetara iristeko, batez ere globalizazioaren eta enpresen arteko bateratzeen garai honetan.” (138.orr)

## 3.3 AMADO ALARCÓN

**Amado Alarcónen** ["Economía de la Lengua"](#) (2011) da hautatu dugun bigarren lana. Alarcónek diosku hizkuntzaren ekonomiak bi azpi atal jasotzen dituela: 1) Hizkuntzaren eta jarduera ekonomikoaren arteko harremana, eta 2) Hizkuntzaren dimentsio sozialen azterketa metodo ekonomikotik, zentzu hertsian.

Berak ere azpimarratzen du neurri handi batean hizkuntzari buruzko errepresentazioak ideologia globalisten markoan egiten ari direla (Beck, 1998), gizarteak merkatuak bailiran kudeatzeko apustua eginez. Eremu ekonomikoan eremu urriko hizkuntzak defendatzea eta erregulatzea auzitan jartzen dute ideologia hauek, produkzio faktoreen mugikortasunari oztopoak ezartzen dizkietela argudiatuz, eta, beraz, hazkunde ekonomikoa eragotziz. Horrela inperialismoaren moduak indartzen dira: indibidualtasun handiagoa, merkatu gehiago, ingeles gehiago. Baina Gary Beckerrek ekonomiaz duen itzal handiko ikuspegiak metodo ekonomikoaren joko zelaia irekitzen du, onartuz ongizatea, maximizatu beharreko mugarria, gogobetetze materiala baino zerbait gehiago dela, eta hor kokatzen du gogobetetze linguistikoa (Colomer, 1996).

Bestalde, eremu urriko hizkuntza komunitateetan hizkuntzaren ikuspegi ekonomikoa hizkuntza gatazkaren ekonomia batetik banaezina dela diosku, errepertorio linguistiko ezberdina duten talde sozialen arteko lehia gisa ulertuta, eta baliabide material eta sinboliko berdinetara iristeko lehian ari direla (Grin, 2003: 3).

Giltzarrizko elementua da merkatuaren arauak botere handieneko jokalariei mesede egiten dietela, eta, ondorioz, lasisser faire linguistiko batek hizkuntza garaileak dituzten talde sozialak eta hizkuntza galtzaileak dituzten taldeak sorrarazten dituela.

Ikuspegi horren baitan, arazoa ez da gutxiengoaren hizkuntzen desagerpena, baizik eta zer posiziotan geratzen diren talde sozial eta linguistiko bakoitzeko kideak, nazioarteko ordena berriaren aurrean (Parijjs, 2002).

Agenda publikoan hizkuntzaren eta ekonomiaren arteko harremanen trataerak deserosotasuna sortzen duela dio, errekonozimenduaren politiken eta hazkunde politiken arteko balizko gatazkak direla eta. Hala ere, sareko ekonomia informazioanalaren inplikazio berriek oraindik eta zailagoa egiten dute eztabaidagai hau saihestea. Arazo nagusietako bat da ingelesak merkatu hizkuntza gisa duen irudikapen sozial dominanteagatik ikerketa ordezkaturia izatea. Trataturako arazoaren garrantzia aintzat hartuta ere, ez dago katalanaren eremu linguistikoan ikertzaileen espezializatorik ekonomiaren eta hizkuntzaren arteko harremanen ikerketan.

Hizkuntzaren ekonomiari buruzko ikerketa ezin da lurraldetasunetik aldendu, ezta zerbitzua ematen dien komunitate linguistikoengandik deslotu ere. Hizkuntzaren ekonomiaren historia laburrean ikus daiteke planteamendu berriak txertatzeko joera bat, gutxiengoaren hizkuntza komunitateetatik sortuak. Hala nola, hizkuntzen erabileraren balioa edo komunikazioaren kalitatea. Hemen hizkuntza lan sektore askoren lan tresna da, izan terminal informatikoen aurrean, baldintza ekonomikoak negoziatzen, edo testu konplexuak ekoizten. Testuinguru horretan, garrantzitsua ez da soilik komunikazioa ahalik eta jende kopuru handienara helaraztea (gero eta gehiago, ingelesaren bidez). Progresiboki geroz eta beharrezkoagoa da kalitate handiagoko komunikazioa, eta beraz, lehen hizkuntzak hizkuntza frankoak baino eraginkorragoak izan daitezke, herritar gehienek gaitasun komunikatibo eta espresibo mugatua baitute azken horietan, eta ziurrenik, izaten jarraituko dute.

### 3.4 AMAIA BALDA

Hausnarketaren atalari amaiera emateko, *Amaia Baldaren* “Enpresak euskararen errotari eragiten” laneko zenbait ideia ekarri ditugu. Lanak industrializazio prozesuak euskararen

ordezkapenean izan duen eragina aintzat hartuz, Debagoieneko enpresak azken mendeetan euskararen bilakaeran eragozle edota sustatzaile izan diren ikertzen du. Izan ere, kooperatibak enpresen euskalduntzean lan munduan aktiboenetarikoak dira, eta hori, lanean ikus daitekeenez, ez da kasualitatearen ondorio. Hala ere, esku artean dugun zereginerako, lan horrek egiten dituen bi proposamen ekartzeko hautua egin dugu:

## **A) Arlo sozioekonomikoaren interes taldeetarako marko diskurtsibo baliagarria definitzea.**

### *1) Hizkuntza praktika ekologikoa enpresetan*

“Hizkuntza ekologiak hizkuntza guztien garapen jasangarria du helburu eta, garapen eredu jasangarrien bilaketan, hizkuntzaren garapena erdigunean kokatzen du. Garapen eredu horrek hiru zutarrak ditu: garapen ekonomikoa, giza garapena eta ingurumenaren babesa. (...) Dimentsio hirukoitza behar du garapenak jasangarri izateko. Tokiko hizkuntzan bizi ahal izatea bizi kalitatearen seinale da. Beraz, garapen eredu jasangarria izango da tokiko hizkuntza gutxiagotuei garapen aukera duina ematen diena eta horretarako neurri orekatzaileak hartzen dituen (Olaizola, 2015).

Inork pentsa dezake EAEren lege markoari esker euskara biziberritzeko baldintza egokiak ditugula. Lege markoa ona da soziolinguistikoki euskaldunak ez diren eremuetarako. Hizkuntza ekologiak, ordea, egungo lege markoak baino printzipio sakonagoak eta eraginkorrak ditu gune soziolinguistikoki euskaldunetan kokatuta dauden erakundeetarako eta herrietarako. Gure lege markoak elebitasuna eta hiztuna jarri ditu erdigunean, hiztunek bi hizkuntza ofizialtan hitz egiteko duten eskubidea da ardatz. Hizkuntza ekologiararen printzipioa, berriz, harago doa: menpeko hizkuntzari lehentasuna eman eta funtzio eskusiboak ematea proposatzen du, eta, gainera, hiztun komunitatea erdigunean jartzen du. Elebitasuna baino urrunago doa, banaketa funtzionala aldarrikatzen baitu, eta hizkuntza aniztasuna kudeatu behar den egoeretan banaketa funtzionala bat dagoen artean, hizkuntzaren garapenak eta jarraipenak ziurtatuta dirudi. (Olaizola, 2015)

Funtsezko ideia hauxe da: eremu hurbilean, talde mailan, tokiko hizkuntza gutxituak funtzio eskusiboak bete behar ditu eta subsidiaritate printzipioaren arabera jokatu behar da; hau da, gertuko kodearekin egin daitekeen guztia ez da hizkuntza handiagoan egin behar, edo bestela esanda, hizkuntza globalik ez da erabili behar tokiko hizkuntza erabiltzea dagoenean.

Aniztasuna kudeatu behar dute enpresek, baina tokiko hizkuntzaren habitata elikatuz. Eta horretarako komunikazio-esparru propioak ziurtatu behar dira enpresetan, hau da, nagusiki euskaraz funtzionatuko duten guneak sortu behar dira, euskararen arnagune izango diren guneak”.


### *2) Erantzukizun soziala*

“Enpresek bizimodua eta identitatea eraldatzen dute, balio askoren sortzaile direlako eta gizarte sistema osoa egituratzen laguntzen dutelako. Okerra da pentsatzea enpresek aberastasun ekonomikoa baino ez dutela sortzen. Ekonomikoki errentagarriak diren enpresak sozialki ere errentagarri izan beharra daukate, eta jakitun izan behar dute gizarteko balio asko indartu egin ditzaketela (genero berdintasuna, hizkuntza aniztasuna, ingurumenarekiko errespetua, kontziliazioaren bultzatzaile, e.a.), edo, alderantziz, kalteak sortu. Konplexutasun hori guztia enpresaren kulturaren eta kudeaketa estiloan txertatu behar dute enpresek, horrek onurak ekarriko

dizkiolako enpresari berari eta gizarteari. Eta diskurtso horiek sozializatu egin behar ditu enpresan nola gizartean.

Azken urteotan erakundeen gizarte erantzukizunaren printzipioa eta kontzeptua garatzen joan dira. Enpresa jada ez da pertsonen gainetik eta gizartetik at dagoen produkzio-gune hutsa; aitzitik, gaurko pentsamoldean eta diskurtsoan, enpresaren egungo erronketariko bat da *“pertsonetikiko eta bere jarduera burutzen duen ingurunearen eskaerekiko sentikortasun handiagoan oinarritutako kultura sendotzea”* (Errazti, 1999).

Erantzukizun sozialaren barruan, **enpresa batek**, bere jarduera ekonomiko eta izaeraren arabera, hizkuntzari dagokionez lehentasun maila ezberdinak izan ditzake (Canyelles, 2010):



It: Canyelles, 2010

- Hizkuntza produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri: museoek, zaharren egoitzak, administrazioak, ikerketa zentro batek, ikus-entzunezkoak ekoizten dituen enpresa batek edo unibertsitateak produktuan edo zerbitzuan hizkuntza txertatzeak lehen mailako lehentasuna izan dezake. Produktuaren edo zerbitzuaren parte da hizkuntza, ahoz edo idatziz komunikatzen duen orok inpaktu zuzena eragiten du hiztunarengan.
- Hizkuntza interes taldeekiko harremanen ezaugarri: kanpoan saltzen duen industria enpresa batek bigarren mailako interesa izan dezake hizkuntzarekiko, eta, zentzu horretan, interes taldeekiko harremanetan hizkuntza kudeatu beharko luke (langileak, bazkideak, hornitzaileak, enpresa taldea, e.a.).
- Hizkuntza enpresa kokatuta dagoen lurraldearen ezaugarri: hizkuntza gutxitua(k) dauden lurraldean kokatuta egon gabe, enpresa horiei zerbitzua ematen dieten erakundeak. Hauek euren barne kudeaketan tokiko hizkuntza ardatz izan gabe, lurraldearen ezaugarri den heinean, kudeatu egin behar lukete komunikazioan.

Erantzukizun sozialaren markoak tokiko hizkuntzari leku egiteko gomendioa ematen du. Halaber, aipatu dugu enpresen erronketako bat dela inguruenaren eskaerekiko sentikortasun eta hurbiltasun handiagoa adieraztea”.



“Arnasgune ziren herriak euskararen itogune izaten lagundu zuen industrializazioak. Enpresaren jarduna eta eragina, beraz, ez dira neutralak. Enpresa orok du hizkuntza politika bat, inplizitua zein esplizitua izan. Eta politika hori, oro har, euskara plana duten zenbait enpresetan izan ezik, gaztelaniaren aldekoa da (azkenaldian baita ingelesaren aldekoa ere). Beraz, hizkuntza aniztasuna eta aniztasunarekiko errespetua enpresen erantzukizuna ere badira.

Enpresei tokiko hizkuntza gutxiagotuekin erantzukizunez jokatzea dagokiela aipatu dugu. Baina zein onura dakarkie enpresei tokiko hizkuntzak biziberritzeak?

1. Tokiko balioak eta kultura barneratuago dutela erakusten dute
2. Tokiko hizkuntzan diharduten eta nazioartekotzeari begira hizkuntzak kudeatzeko gai diren enpresek arrakastarako elementu gehiago dituzte:
  - a. Konplexutasuna kudeatzeko gauza direla erakusten dutelako.
  - b. Gai sozialekiko sentsibilitatea erakusten dutelako.
  - c. Merkatua globala da, eta berezitasun eta desberdintasunak garrantzia duelako.
  - d. Langileak gogobeteta badaude, inplikatuago daudelako enpresarekin
  - e. Euskara kudeatzeak beste hizkuntzak hobeto kudeatzen laguntzen duelako.
3. Tokiko hizkuntzaren biziberritzeari era kolektiboan eta sistemikoan erantzuten zaio. Hizkuntzaren biziberritzeari hezkuntzatik, herrigintzatik eta administratibotik soilik ezin zaio heldu, enpresek gizartearena den proiektu komunari ekarpena egin behar diote, jarraikortasuna eman lan munduan beste arloetan egindako inbertsioari.
4. Tokiko hizkuntzak identitatearen parte dira, gure kasuan, euskalduntasunaren adierazle. Pertsonen beren hizkuntzan lan egiteko aukera emanez, enpresarekiko atxikimendua handitzen da, barne-kohesioa eta langileak motibatzea lortzen da
5. Oreka ardatza da naturarekiko eta bizitzarako ezinbesteko baliabideen errespetua, etorkizuneko belaunaldiak euren beharrezkoak ase ditzaten. Eta, nola ez, horren barruan tokiko hizkuntza biziberritzeko konpromisoa sartzen da”.

Amaia Baldak, beraz, arlo sozioekonomikoko interes taldeetarako marko diskurtsiborako hizkuntza ekologia eta gizarte erantzukizuna proposatzen ditu, ikusi berri dugun bezala. Eta marko diskurtsiboaz ari garela, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak 2016an egindako Euskararen Gaietako Oinarriko Diskurtsoen Lanketa txostenean aztertutakoak eta ateratako ondorioak ere aintzat hartzekoak dira, lan munduaz harago doan planteamendua izanik ere. Bereziki gomendatuko genuke 96. orrialdeko “2.3 Aurrera begirako proposamenak” atalean jasotakoak burutan izatea marko diskurtsiboari begira.



Baldaren lanera bueltatuz, interesgarri deritzogun bigarren ekarpena honakoa da:

### **B) Enpresak euskararen biziberritzean eragile izateko proposamena.**

“Gizartean oihartzun handiagoa izan behar dute enpresetako euskara planek. Urte askotan barnera begirako lanean jardun dute, instituzionalizatutako egituren barruan koordinatzen. Baina herri mailako mugimendutik aparte samar. Erronka berriak hasi dira agertzen. Eta enpresek eta lan munduak berebiziko garrantzia dute afera horretan (Saez, 2017). Eragin ahalmena dute hezkuntzan, lanbide heziketan eta unibertsitatean, esaterako. Eragin ahalmena dute hizkuntzaren prestigioan eta funtzionaltasunean. Zentzua eta jarraipena ematen diete esparru ezberdinetan egiten den ahaleginari. Eta pertsuasioa erabili, “ahal” dela erakutsi, ekarpena bistaratu edota presioa egin dezake enpresa eremuan eta gizarteko esparru ezberdinetan. Oskol barrutik atera eta gizartea euskalduntzen lagundu behar dute enpresek komunikazio estrategia sendo bat erabiliz, eta administrazioaren sail ezberdinen laguntzaz (industria, berrikuntza, hezkuntza, e.a.).